
ERNESTO ETA ZELESTINA SIMEON GALDU DA

Testua eta irudiak: **GABRIELLE VINCENT**

Itzulpena: Eva Linazasoro

Azal gogorrean koadernatua. 24 x 22 cm. 32 or. 15 €.

Ernesto eta Zelestina, Simeon galdu da (euskara)
ISBN 978-84-9172-016-4. Gaur egungo klasikoak.

Ernesto y Celestina han perdido a Simeón (gaztelania)
ISBN 978-84-8464-362-3. Clásicos contemporáneos.

Ernesto e Celestina perderon a Simeón (galegoa)
ISBN 978-84-8464-361-6. Tras os montes.

Ernest i Celestina han perdut en Simeó (katalana)
ISBN 978-84-16804-36-8. Clàssics contemporanis.

–Bazatoz Simeon? Paseatzera goaz.

–Itxaron apur bat, Ernesto. Ia prest gaude.

–Hotz handia dago, Zelestina

–Goazen etxera!

–Etorri Ernesto, zatoz! Simeonen bila joan behar dugu!


Zelako atsekabea hartzen duen Zelestinak bere panpin kuttuna galtzean! Ernestok, zorionez, irtenbide polita aurkituko dio arazoari, bai Zelestinarentzat bai eta basoan bizi diren beste animalientzat. Horretarako daude benetako adiskideak!

Gabrielle Vicentek 80ko hamarkadan argitaratutako hartz zintzo eta sagutxo baten gorabeherak jasotzen dituen 30 liburuz osatutako bildumaren aleetako bat da *Ernesto eta Zelestina, Simeon galdu da*.

Elkarrizketa egitura duen liburu honetako lenguaia sinplea da, eta testuaren eta ilustrazioen arteko oreka handia du. Pasadizo zenbaitetako hitzik eza istorioaren narrazio bisualarekin ordezkatzeko dira. Irudi piktorikoak dira, akuarelaz egindako marrazki leunak.

Bien arteko desberdintasunak begien bistakoak dira, bai fisikoak (Ernesto mardul-mardula da eta Zelestina, berriz, txiki-txikia), bai eta izaerari dagozkionak: sagua sentikor eta oldarkorra, lasaia eta patsadatsua hartza.

Kontakizun goxoa da, humorezko zertzeladez bete: zailtasunak gainditzeko adiskidetasunak, ezkuzabaltasunak, batasunak eta izpiritu ekintzaileak duten garrantzia azpimarratzen duena. Zoriona gauza txikietan aurkitzearen eta tarte onak partekatzearen aldeko apustua egiten duen kontakizuna.



- **Gala:** adiskidetasuna, ekimena, hobetzea.
- **Zeln adinetarako:** 3 urtetik aurrera, lehen irakurleak
- **Alderdi azpimarragarriak:** itxura eta nortasun desberdinak eta osagarriak, elkarbizitza, eskuzabaltasuna, laguntasuna, ontasuna, emozioak, Eguberriak. "Ernesto eta Zelestina, kale musikariak" liburuaren egile berarena.

Gabrielle Vincent

(Brusela, 1928 - 2000)

Monique Martinen ezizena, Gabrielle eta Vincent bere aitona-amonengandik hartu zuena. 80. hamarkadan haur liburuak idatzi eta ilustratzen hasi aurretik margolaria izan zen. Bere lanik goraipatuena Ernesto eta Zelestina bilduma izan da, zeina 2012an zinemarako egokitua izan bait zen eta honako sari hauek lortu: Zesar Saria animaziozko film onenari, aipamen berezi bat Cannes-eko Jaialdian, eta Los Angeles-eko Kritikarien Elkarteak emandako sari bat.



www. **Kalandraka**.com

comunicacion@kalandraka.com

www. **Pamiela**
etxea
soltxate@pamiela.com
